

Gurasoekiko harremana: unitateen laburpen didaktikoa

URTXINTXA proiektuak gurasoekiko harremana bideratzeko hainbat tresna proposatzen ditu unitateetan zehar. Ondoren ikus daitekeen tresna berriz, hiruhilabete bakoitzari hasiera eman aurretik, garai horretan gelan landuko diren edukien berri emateko dago prestatuta. Gurasoei zuzenduriko gutuna, gaien ikas-norabideen laburpena eta zenbait eduki zehatzen deskribapena (artelana, eta musika klasikoaren entzunaldia) aurki daitezke dokumentu honetan. Bestetik, gurasoek denboraz jakin dezaten, etxetik haurrek ezer ekarri behar badute, hori ere adierazten zaie, hala nola haurraren beharretarako irizpide nagusiak zein diren.

Irakasleei dagokie erabakitzea, informazio hau osotasunean bidaliko den ala ikastetxearen praktikaren arabera egokitu edo laburtuta bidaliko den.

Hiruhilabete hasieretan gurasoei bidaltzeko GUTUNA

Gurasoak agur:

Xango Matxinsaltoa naiz, hementxe naukazue hiruhilabete berriari hasiera eman diogun honetan, landuko ditugun gaien laburpen txiki bat emateko asmoz.

Honezkero, ederki dakizuen bezala, unitate bakoitzeko gaia, hainbat atalean zatitzen dugu. Unitateari, gehienetan, gaiarekin zerikusia duen ipuin batekin ematen diogu hasiera, ondoren, atal bakoitzaren inguruan, hainbat eduki lantzen ditugularik: hizkuntzazkoak (Horma-irudia, olerkiak, igarkizunak, tradiziozko abestiak, euskaraz jolasteko abestiak e.a.), matematikakoak, musikakoak, plastikakoak eta gorputz adierazpenekoak, nortasunari dagozkionak...

Bestalde, unitate bakoitzean artelan bat behatzen dugu (zenbaitetan, proposamenean oinarriturik, gure artelana ere eraikitzen dugu) eta musika klasikoko obra baten ataltxo bat ere entzungo dugu. Obra horiek bere osotasunean etxean entzun nahi bazenituzte, beren aipamen bat ere bidaltzen dizuegu.

Zuen haurrak gela barruan egiten duenaren berri izatea baliagarri izango zaizuelakoan, besarkada bat eta beste bat arte.

XANGO MATXINSALTOA

Lehen hiruhilabeteko gurasoei bidaltzeko IKAS-NORABIDEK eta UNITATEEN LABURPENAK

1.guia: IKASTOLA. Lagun berriak

- Hasteko, haurrek ni ezagutuko naute! Ni nor naizen? Bada, urte osoan zehar maskota edo bidaia-lagun izango duten *Xango* matxinsalto jatorra!

- Jarraian, gela berria txukundu eta egunero-egunero gelan sartu bezain pronto egingo ditugun zenbait jolas eta ekintza martxan jarriko ditugu irakaslearen laguntzarekin, noski.
- Ondoren, ikastolara joan nahi zuten Hondarralde herriko haurrei zer gertatu zitzaien eta, Romualdo zuzendariak helikopteroarekin ikastola txikitu zuenean, egoera nola konpondu zuten argituko digun ipuina entzungo dugu. Eta ez ipuina bakarrik, baita kantak, olerkiak, jolasak, igarkizunak... ere.
- Segidan, gure ikastolan zein pertsona dauden, nolako jostailuak ditugun... ikusiko dugu eta ikastolan hiru urterekin sartu ginenetik gaur egunera arte egindako bidea gogoratuko dugu: nolakoak ginen 3 urterekin, nor izan zen urte hartako gure gidaria, zein jolas izan ditugun gustukoen...
- Artelana: Jorge Oteiza Enbil. *Klarionen laborategia*.
- Entzunaldia: Wagner. *Tanhauser*.
- Haurrek etxetik ekarri behar dutena: zuen seme-alabaren argazki bat (karnet formatukoa ez bada hobe) eta paper batean zuen etxeko helbidea idatzita. Noiz ekarri behar duten adieraziko dizuegu.

2. gaia: GARRAIOAK eta BIDEAK. Munduari biraka

- Hasteko txokolate eta txurro super-super goxoak jango ditugu! Ezetz, je, je, je... broma bat zen! Hasteko ipuin zoragarri bat entzungo dugu eta beti bezala honen inguruan sortzen diren abestiak abestu, dantzatu, olerkiak irakurri, igarkizunak asmatu... Zer ipuina den? Bada... oraingo honetan pista bat besterik ez dizuet emango. Bidaiatzera doan gizon baten ipuina da eta berak nahi gabe, erraldoi bihurtuko da! Ba al dakizue zer ipuin den? Ez? Bai? Beno, lasai, laster entzungo duzue eta!
- Ondoren bidaiak egiteko zer garraio mota ezagutzen ditugun aztertuko dugu eta hobeto ezagutzen ahaleginduko gara. Ni patinetean ibiltzen naiz batetik bestera!
- Segidan, munduko parajeak ikusiko ditugu eta planoak eta mapak erabiliz munduan zehar ibiliko gara. Zuen gurasoak bezala, uau!
- Horren ostean, bidaia bat, irtenaldi bat antolatu beharko dugu eta horretarako hainbat erabaki hartuko ditugu: nora joan nahi dugun, nola, zenbat kostatzen den... Zer iruditzen zaizue irakasleari ilargira joan nahi dugula esaten badiogu? Lehengo egunean nire patinetea hartu eta fiuuuu eguzkiraino joan nintzen, ji, ji, ji!
- Artelana: Henri Rousseau. *Sévresko zubia*, 1908.
- Entzunaldia: Dvrak. *Mundu berriaren sinfonia*.
- Haurrek etxetik ekarri behar dutena: gelan irudimenezko bidaia bat egiteko, Ameriketako Estatu Batuetako, Frantzia (hegoaldekoak) Espainiako (iparraldekoak) eta Brasileko liburuak, posterrak, argazkiak (etxean aurki dezakezuen)... Noiz ekarri behar duten adieraziko dizuet.

3. gaia: UDAZKENA. Zatoz hostoen eta perretxikoen erakusketara!

- Hasteko, irakasleak ni baino txantxazaleagoa zen artzain baten ipuina kontatuko du, Artzain gezurtiaren ipuina. Baina zuek ba al dakizue zer egiten

duten artzainek esnearekin? Mermelada? Gailetak? Ez, ezta? Ea, nork daki zer egiten duten?... Horixe baietz! Guk ere esnearekin zer egin dezakegun ikusiko dugu eta honen inguruan zenbait fitxa, olerki, abesti... egin eta ikasiko ditugu. Uaum, zein goxo!

- Segidan, udazkenean naturan gertatzen diren zenbait gauzari erreparatuko diogu: hostoak ezagutuko ditugu ikastolan.
- Horren ostean, eta bukatzeko, hostoen eta perretxikoen erakusketa mundiala prestatuko dugu ikastolan.
- Artelana: Adolfo Guiarde. *Krabelin gorriko neskatxa.*
- Entzunaldia: Verdi. *Nabucco*
- Hurrek etxetik ekarri behar dutena: esnekien etiketak., zuhaitzei buruzko liburuak, etxean baldin badituzue, eta azkenik, perretxikoei buruzko liburuak ere bai, ahal izanez gero. Gauza bakoitza noiz ekarri behar duten adieraziko dizuegu.

4. gaia: GABONAK. Dringilindron, gaur Gabon!

- Lehenik eta behin, irakasleak orain dela urte asko eta asko Olentzerori gertatu zitzaion istorioaren ipuina kontatuko du eta ipuinarekin batera Gabonetako abestiak, olerkiak, igarkizunak... ikasiko ditugu.
- Segidan, Mari Domingi ikastolara etortzen denerako, gela apaindu eta txukunduko dugu, guk egindako Gabonetako apaingarriak erabiliz.
- Horren ostean, Olentzerori gutuna edo eskutitza idatzi baino lehen, jostailuak ezagutu eta etxeetara iristen zaizkigun iragarkiak aztertuko ditugu.
- Eta bukatzeko, San Tomaseko feria prestatzen hasten garen bitartean, hurrek egin, ikasi edo ikusi nahi duten beste edozer gauza irakasleari proposatzeko aukera izango dute ikasleek.
- Artelana: Leonardo da Vinci. *Magoen adorazioa.*
- Entzunaldia: Grofe. *Arroila handiaren suitea.*
- Hurrek etxetik ekarri behar duten San Tomaseko feria antolatzekeo barazkiak, animaliatxoak...

Bigarren hiruhilabetean gurasoei bidaltzeko IKAS-NORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

5. gaia: ANTZERKIA NEGUAN. Guk beti jai

- Lehenik eta behin, elkarren artean Olentzerok zer ekarri digun kontatzeko parada izango dugu, jakina, eta segidan neguko eguraldiari buruz hitz egingo dugu: euria, elurra, kazkabarra... Eta gainera, txiki-txikiak ginenean egindako zenbait esperimendu errepikatuko ditugu: berriro ere zientzialariak bezala ibiliko gara!
- Ondoren, irakasleak *Makilakixki* ipuina kontatuko du. Ezagutzen al duzue? Ez? Ikusiko duzue zein polita den! Eta beti bezala, honen inguruan olerkiak, abestiak, igarkizunak... ikasiko ditugu.

- Zuek denbora librea duzuenen eta eguraldi txarra egiten duenean zer egiten duzue? Horixe, zinemara, musika kontzertuetara, antzerkira... joaten zarete ezta? Bada, ipuina landu ondoren, ba al dakizue zer prestatuko dugun denon artean? Ideiarik ez, ein? Je, je, je... Makilakixkiren antzerkia! Bai, bai! Eta dena prestatu ondoren, zuek, aitona eta amona eta beste hainbat lagun antzerkia ikustera gonbidatuko ditugu. Zer iruditzen zaizue? Mundiala, e?
- Artelana: Picasso. *Bolako orekaria*.
- Entzunaldia: Arriaga. *Esklabo zoriontsua*.

6. gaia: INAUTERIAK. Ta Galtzaundi, ta Galtzaundi.

- Hasieran, gure herrian oso sustraituta dauden ohiturak gogoratuko ditugu: Kandelario eguna, San Blas eta Santa Ageda.
- Segidan, beste ipuin bat entzungo dugu. Ez dizuet esango zein ipuin den, baina bai niri txikitan kontatu zidatenean, beldur pixka bat pasatu nuela! Eta, beti bezala, ipuinarekin batera, olerkiak, esaera zaharrak, jolasak, abestiak... ikasiko ditugu.
- Ondoren, Euskal Herriko inauterietako pertsonaiak ezagutuko ditugu: Ziripot, atorrak, kazkarotak...
- Horren ostean, gure ikastolako inauteriak prestatuko ditugu: mozorroa, abestiak, dantzak... eta zuekin batera, hala nahi baduzue behintzat, festa bat egingo dugu. A. eta besteak beste, txistor jana ere egingo dugu!
- Artelana: Botticelli. *Palas Atenea Zentauroa hezten*.
- Entzunaldia: Ravel. *Bolero*

7. gaia: GORPUTZA. Horrelakoa naiz!

- Hasteko, ezberdina zelako itsusia zela pentsatzen zuen ahate baten ipuina kontatuko dugu, eta jakina, honen inguruan, olerkiak, hitz-jokoak, abestiak... ikasiko ditugu.
- Ondoren, nola jai ginen ikusiko dugu. Elkarren artean ezberdinak gabela konturatuko gara. Denok gara bakarrak eta ezberdinak!
- Horren ostean, gure gorputza barrutik nolakoa den ikusi eta ondo zaintzeko zer egin behar dugun aztertuko dugu. Ai ene, zenbat gauza ditugun gure barrualdean: birikak, bihotza, hesteak...!
- Eta bukatzeko, gorputza erabiliz zenbat jolas egin ditzakegun ikusiko dugu. Txatxipiruli pasako dugu!
- Artelana: Miró, Picasso, Van Gogh, Rembrant, Cézanne eta Arcimboldoren (auto) erretratuak.
- Entzunaldia: Txaikovsky. *Beltxargaren aintzira*.

8. gaia: HERRIA: ELKARREKIN BIZI GARA. Kalean gora, kalean behera.

- Egun hauetan gure herriari buruz hitz egiten, ikertzen, idazten... ibiliko gara. Baina, ikus dezagun zer eta noiz egingo dugun! Lehenik eta behin, ipuin bat kontatuko dugu: herri batean bizi zen erraldoi berekoi baten ipuina. Eta jakina,

honen inguruan beti bezala, olerkiak, esaera zaharrak, abestiak... landuko ditugu. Portzieto, zuen herrian ba al dago horrelako pertsonaiarik?

- Segidan, gure herriko kaleetan zehar lasai ibili ahal izateko zer arau eta zer seinaleak dauden ikasiko dugu.
- Eta Bukatzeko, gure herria nolakoa den, zer elementu interesgarri dituen eta bertan nolako jendea bizi garen ikusiko dugu. A, eta hau dena aztertu ondoren, kazetari bihurtuko gara eta herriari buruzko aldizkaritxo bat osatuko dugu zuei eta familiako guztiei erakutsi ahal izateko! Beno, uste dut egun hauetan askotan atera beharko garela ikastolatik kalera gure herriko parajeak ikusi eta jendearekin egoteko.
- Artelana: Irene Laffitte. *Hondarribia*.
- Entzunaldia: Aita Donostia. *Irulea*.

Hirugarren hiruhilabetean gurasoei bidaltzeko IKAS-NORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

9. gaia: INGURUNEA ZAINTZEN. Zaborrik gabe hobe!

- Hasteko, irakasleak ipuin polit bat kontatuko digu. Zer ipuin den? Aaaaa, laster jakingo duzue zein den! Oraingo esango dizuedan gauza bakarra hau da: oso polita dela, barregura sortzen duten horietakoa, eta, gainera, oso mezu ederra duena.
- Gero, gure herriaren inguruko mendietako natura aztertzen eta Euskal Herriko mendiak ezagutzen saiatuko gara.
- Ondoren, natura zaintzeko geureganatu beharko genituzkeen ohiturei buruz egingo dugu eta birziklapenaren inguruan gauza asko ikasiko ditugu.
- Artelanak: Tony Cragg. *Kultura afrikarraren mitoa* eta Antoni Tápies. *Margolana*.
- Entzunaldia: Mozart. *Rondo alla turca*.

10. gaia: UDABERRIAN. Txio txio txoriak.

- Hasteko, kutsu magiko duen ipuina kontatuko digu irakasleak. Ez, ez da Txan magoarena. Bai, badakit Txan magoak magia egiten duela, baina hau beste magia mota bat izango da.
- Gero, babarrun jana egingo dugu. Ez, ez, broma zen, gustura egingo nuke baina... Ba al dakizue nondik lortzen ditugun babarrunak? Itsasotik? Kanaberaz? Zuhaitzetan jaiotzen ote dira? Habietan txoriak bezala? Ez, eta ez. Baratzetik jasotzen ditugu. Bai ezta? Horrela bada, baratzera gerturatuko gara eta hango barazki batzuk ezagutuko ditugu: porruak, letxugak, lekak... Eta babarrun jana ez, baina menestra bat egingo bagenu? Hau ere broma zen...
- Segidan, nire koadrilako laguntxo batzuk aurkeztuko dizkiet haurrei. Ea asmatzen duzuen zeini buruz ari naizen. Oso langileak dira eta ez dira inurriak, lorez lor ibiltzen dira eta ez dira tximeletak, beraien lanari esker elikagai gozo bezain osasuntsua lortzen dugu. Bai! Erleak dira! Hauek ere pixka bat ezagutu eta eztiak zertarako balio duen ere ikasiko dugu.
- Artelana: Vincent Van Gogh. *Mertxikondoa loretan*.

- Entzunaldia: Robert Schumann. *Allegro afetuoso Op. 54*

11. gaia: ERAIKUNTZA. Kox-kox mailuaz iltzeak joz.

- Hasteko, etxeak, zubiak... pentsa dezakezuen edozer gauza plis-plas batean eraikitzen zituzten *Galtzagorri langileen* ipuina kontatuko digu irakasleak. Oso ipuina polita da eta beti bezala, honen inguruan, olerkiak, igarkizunak, hitz-jokoak ikasiko ditugu.
- Ondoren, etxeen eraikuntza aztertuko dugu. Zer prozesu jarraitu behar den etxe bat eraikitzeko, zer langile motak hartzen duten parte horrelako eraikuntza batean, zer material erabiltzen den...
- Segidan, guk ere zerbait egin behar dugula eta,, etxeak egiten hasiko ez garenez, musika-tresna batzuk egingo ditugu: potodunbak, arrastafonoak, futafonoak... eta hauekin musika egingo dugu!
- Artelanak: *Arrizalako trikuharria, Egiptoko piramideak, Parthenon, Colosseum, Milango Katedrala, Alcala de Henareseko Unibertsitatea (Gil de Hontañón), Batló etxea (Antoni Gaudi), eta Kursaal eraikina (Rafael Moneo)*
- Entzunaldia: Joaquin Rodrigo. *Aranjuezeko kontzertua.*

12. gaia: OPORRAK eta SAN JOAN SUA. San Joan sua, oporrak!

- Hasteko, gehienetan bezala ipuin bat kontatuko digu irakasleak eta honen inguruan olerkiak, igarkizunak, etab. Ikasi eta jarduera pila bat egingo ditugu.
- Ondoren, herriko festak eta San Joan suaren inguruko ohiturak eta ekintzak gogoratu eta berriak ikasiko ditugu.
- Eta bukatzeko, snif! Bukatzeko... ikastolan hasi ginenetik ezagutu ditugun pertsonak eta lagunak gogoratu, snif, eta agurtu ondoren... denok oporretara!
- Artelana: Marc Chagall. *Negua.*
- Entzunaldia: Bedrich Smetana. *Vtava.*